

## Zeruaren banaketan, **desoreka**

Lau milioi bidaiari baino gehiago hartu dituzte Euskal Herriko bost aireportuek urteko lehen zortzi hilabeteetan; Loiu da bidaiarien artean erreferentzia, eta Foronda merkantzia.

**JON REJADO /AITOR RENTERIA**  
 Gasteiz / Baiona

**L**oiu, Foronda, Hondarribia, Miarritze eta Noain. Bost aireportu 150 kilometro koadroan. Euskal Herriko bost aireportuetan biderkatu egin da bidaiari kopurua azken urteetan: iaz 4.700.000 bidaiarik baino gehiagok erabili zituzten Euskal Herriko aireportuak, 1999. urtean baino %60 gehiagok alegia. Igoera hori ez da orekatua izan, ordea. Izan ere, bidaiarien lautik hiru Loiutik irten dira. Eskaintzari dagokionez, Loiu eta Miarritzekoak dira interesgarrienak.

### FORONDA

Merkantzia, jaun eta jabe

Merkantzia izan da Forondako ezaugarri nagusia ia sorreratik bertatik. 1981. urtean, aireportua zabaldu eta urtebetera, aduanako azpiegitura handitu eta merkantzia espezializatu zen. Nazioarteko merkantziaren gorakada, ordea, Europako Batasunaren mugak ireki zirenean heldu zen. Hala, 2005. urtean Euskal Herrian mugitu zen merkantziaren %90 igaro zen Forondatik. Iaz, adibidez, 31.575 tona merkantzia garraiatu zen bertatik.


3.500 metro luze den pistari esker, hegazkin handiek lur har dezake bertan. Salgai galkorren garraioa eta pakete garraioa dira indar gehien dutenak.

Bidaiariei dagokienez inoiz ez da izan erreferente garrantzitsua. 2005. urteko bukaeran Ryan Air hegaldi merkeak eskaintzen dituen konpainiarekin gorakada izan behar zuela ematen zuen. Milioi bat euroko laguntza jaso zuen orduan, baina airelinea horrek urriaren 24an utziko du Foronda. VIAk, 1994. urtetik aireportua sustatzen duen elkar-teak, ordeko bat bilatzeko asmoa du.

2009rako Forondako azpiegitura elektrikoaren zaharberitze proiektua idazten ari da AENA

### ■ EUSKAL HERRIKO AIREPORTUEN BILAKAERA ETA HEGALDI NAGUSIAK

#### Bidaiariak



ITURRIA: AENA, MIARRITZEKO AIREPORTUA

#### Loiu (Bizkaia)



- 2007ko bidaiariak: 2.835.645 (abuztura arte).
- Pisten luzera: 1.a, 2.600 m; 2.a, 2.000 m.
- Martxan jarri zen urtea: 2000 (Sondika, 1948).
- Konpainia nagusiak: Iberia, Spanair, Air Nostrum, Air Europa, Lufthansa, Vueling, Air France, Click Air.

#### Miarritze (Lapurdi)



- 2007ko bidaiariak: 541.664 (abuztura arte).
- Pisten luzera: 2.500 m.
- Martxan jarri zen urtea: 1993.
- Konpainia nagusiak: Air France, Ryanair, Sterling, Flybaboo.

#### Noain (Nafarroa)



- 2007ko bidaiariak: 325.368 (abuztura arte).
- Pistaren luzera: 2.207 m. (2008an 2.407 m-ra luzatuko dute).
- Martxan jarri zen urtea: 1972.
- Konpainia nagusiak: Iberia, Spanair, Air Nostrum, Portugalia.

#### Hondarribia (Gipuzkoa)



- 2007ko bidaiariak: 306.484 (abuztura arte).
- Pistaren luzera: 1.754 m.
- Martxan jarri zen urtea: 1961.
- Konpainia nagusiak: Iberia, Spanair, Air Nostrum.

#### Foronda (Araba)



- 2007ko bidaiariak: 131.389 (abuztura arte).
- Pistaren luzera: 3.500 m.
- Martxan jarri zen urtea: 1980.
- Konpainia nagusiak: Ryan Air, Air Nostrum, Iberworld.

Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa. Pista eta zerrendak egokitzeko proiektua denbora gutxi barru hasiko dira idazten, eta aparkalekuak egokitu eta handitzeko asmoa ere badute.

### LOIU

Bidaiarien erreferentzia

Bizkaiko berrikuntzaren erreferentzien artean kokatu da Loiu azken urteetan. 2000. urteko azaroan Santiago Calatravak diseinutako Usoa terminal berria inauguratu zuen, eta, hortik aurrera, etengabeko gorakada bizi izan du aireportuak. 2015. urtean 4,3 milioi bidaiari izango zituela aurreikusitako Espainiako Sustapen Ministerioak. Egungo bilakera izanez gero, datorren urtean gaitutuko du kopuru hori, eta

**Egungo bilakera izanez gero, Loiu azpiegitura bere mugara iritsiko da bost milioi bidaiarirekin**

azpiegitura bere mugara iritsiko da bost milioi bidaiari izanez gero. AENAKo aireportuen artean, Kantauri kostaldeko erreferente bihurtu da Loiu. Aurten jada ia hiru milioi bidaiari igaro dira bertatik. Bidaiarien hiru laurdenak Espainiakoak, Herrialde Katalanetakoak, Galiziakoak eta Euskal Herrikoak dira.

Azpiegitura aldetik etengabeko berrikuntza ekarri du mugimendu horrek. Merkantzientzako terminal berri bat egiteko eta hegazkinak aparkatzeko plataforma handitzeko proiektuak idazten ari dira.

### HONDARRIBIA

Etorkizuna zalantzan

Albiste iturri bihurtu da Hondarribiko aireportua azken asteotan.

**Noingo pista egokitu eta 200 metro luzatzeko asmoa dute, 2.407 metro luze izatera iritsi arte**

Europako Batasunak ezarritako segurtasun baldintzetara egokitzeko pista 300 metro mozteko erabakia hartu du AENAK, eta horrek etorkizuna baldintzatu diezairoke aireportuari. Bien bitartean, urte hasieratik izaniko bidaiari kopurua aurreko urteko lehen zortzi hilabeteko kopurua baino %32,8 handiagoa da. Hain zuzen, 2015. urterako 650.000 bidaiari izatera heltzeko helburua jarri zuten 2001ean.

Hondarribia eztabaida iturri izan da, ordea, urte luzetan. Erre-aktoreei bertan lur hartzea debeku zien 1992. urtera arte, zarata zela-eta. 2001ean pista 200 metro luzatzeko egitasmoa aurkeztu zuen Espainiako Sustapen Ministerioak eta hainbat alderditatik gogor kritikatu zuten proposa-

**Hondarribiko eta Miarritzeko aireportuek elkar osatzen dutela uste du Miarritzeko zuzendariak**

men hura. Joan den astean, Ortzibia elkarte publikoa osatzen duten erakundeek ez zuten auziar gaineko jarrera bateratua adostea lortu. Bi ordu eta erdiko bilera egin zuten Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundi-ko, Gipuzkoako Bazkondeko eta Donostiako, Iruneko eta Hondarribiko udaletako ordezkariak. Baina aireportua handitzeko eskatuz eginiko testua ez zuten izenpetu ez Irunek ez Hondarribiak. Bai, ordea, gainerako instituzioetako ordezkariak.

### NOAIN

Apala, baina handitze bidean

Gorabehera gutxi duen aireportua da Euskal Herrian. Hegaldien gorakadak eragin handirik ez du izan Noainen. Hala, zazpi urtean 30.000 bidaiariren igoera besterik ez du izan. Etorkizuna oso bestelakoa izan daiteke, ordea. AENAK hiru lan garrantzitsu egin nahi ditu bertan: lau solairuko terminal gune berria eta kontrol dorre be-